



Mundu bat denontzatat

Destinations pour tous » munduko Goi-bileran egindako adierazpena, Montréal, 2014

Kanadako Montreal hirian, 2014ko urriaren 19tik 22arte, « **Destinations pour tous** » munduko **Goi-bileran** bildu garenok, munduko hainbat herri eta eskualdetik etorritako emakume eta gizonok, profesionalak, GKE eta jendarte zibileko hainbat sektoretako ordezkariak, unibertsitarioek, gobernu, nazioarte eta erakunde multilateraletako enplegatuek, **adierazpen hau adostu dugu** :

Turismo inklusiboaren eta denon (pertsona elbarritu eta adinduak, familiak eta beste bidaiari) eskura jarritako bidai helmuguen garapena eta sustapenari egindako ekarpen garrantzitsuak **kontutan harturik**, neurri horien lehen onuradunak bertako herritarrak direla **jakinik**, aipatu ekarpenak izanik :

- ❑ *Pertsona elbarrituaren eskubideen adierazpena (ONU, 1975)ⁱ;*
- ❑ *Design Universal-en oinarriak (The Center for Universal Design, 1997)ⁱⁱ;*
- ❑ *Turismoari dagokion etikaren mundu kodea (OMT, 1999)ⁱⁱⁱ;*
- ❑ *2010, Europa eskuragarri bat denontzat (Europako Komisioa, 2003)^{iv};*
- ❑ *Rio de Janeiron sinatutako Garapen iraunkor eta inklusiboaren aldeko Diseinu unibertsalari buruzko Gutuna (2004)^v;*
- ❑ *Pertsona elbarrituen eskubideei buruzko Hitzarmena (ONU, 2006)^{vi};*
- ❑ *Asia-Ozeano Bareako erkidegoen garapenari buruzko Takaymako Adierazpena (UN Economic and Social Commission for Asia and the Pacific, ESCAP, 2009)^{vii};*
- ❑ *ISO 21542 Araua, Etxegintza – ingurumen eraikira iristeko eta berau erabiltzeko erraztasuna, eraikinen diseinurako eta azpiegitura turistikoentzako eredua delarik (2011)^{viii};*
- ❑ *Turismo eskuragarria sustatzeko Manifestu italiarra (2011)^{ix};*
- ❑ *Elbarritasunari buruzko mundu Txostena, zeinen arabera, munduan mila milioitik gora pertsona elbarritu dago (OMS, 2011)^x;*
- ❑ *Responsible Tourism in Destinations addressing Access to All (ICRT, Canada, 2011)^{xi} izeneko 5. nazioarteko biltzarra;*
- ❑ *Nazioarteko hegazkintza zibilari buruzko Hitzarmenaren 9. eranskinean aholkatzen diren arauak eta praktikak (Chicago Convention, 1944), eta OACIren gidaliburuan pertsona elbarrituei aireko garraioa errazteko azaltzen diren gomendioak (Manuel sur l'accès des personnes handicapées au transport aérien (OACI, 2013)^{xii};*

- ❑ *Denontzako eskuragarria den turismo baten aldeko OMTeren gomendioak*, ONCE Fundazioa eta ENATen laguntzarekin eguneratutakoak (OMT, 2013)^{xiii};
- ❑ ONCE Fundazioak sustatuta, 2004, 2007, 2010 eta 2013an Espainian egindako *nazioarteko Kongresuak Denontzako turismoari buruz*^{xiv};
- ❑ Bartzelonako Adierazpena (2013): *The Catalunya 2020 Vision for Responsible*^{xv};
- ❑ 2005, 2007, 2009, 2011n eta 2014ko abenduan Asiako Hego-Ekialdean, turismo eskuragarriari buruz egindako nazioarteko Kongresuak^{xvi};
- ❑ Itsuen Elkarte Europarrak (EBU) egindako txostena eta ekimenerako deia *Access to Culture 2012* izenburupean^{xvii};
- ❑ Gorren Nazioarteko Elkartearen 2011-2015 ekimen plana, *Way Forward*^{xviii};
- ❑ Garraio araubidez arduratzen direnen nazioarteko Elkartek (IATR, 2014) aurkeztu elbarrituentzat egokitutako taxiak erabiltzeko araubide eredu^{xix};
- ❑ *Lan Talde irekiak Garapen iraunkorraren helburuei buruz eginiko Proposamena* eta NBEko Batzar Nagusiko 13. bileran aurkeztua, zeinaren xedea da: *“hiriak eta jende-establezimenduak denentzat irekiak, seguruak, hauskaitzak eta iraunkorrak izan daitezten”* (OWG, 2014ko abuztua)^{xx};
- ❑ Honako nazioarteko erakundeek OMT, ENAT, OITS, ONCE Fundazioa, le Centre mondial d’Excellence des destinations (CED), Kéroul eta « **Destinations pour tous** » **munduko Goi-bilerako** parte-hartzaile zenbaitek egindako ahaleginak nazioarteko erkidegoaren alde garatutako jakinduria eta esperientzia amankomunean ezartzeko;

Gu, Montrealeko Goi-bileran parte hartu dugunok, adierazi nahi dugu aurrerantzean elkar lanean segituko dugula, nazioartean zein gure herrialde bakoitzean **OMTek denentzako eskuragarria den turismo baten alde egindako Gomendioak** gauzatzeko.

Helburu hori izaki, honako neurriak aholkatzen eta sustengatzen ditugu :

Turismo, bidai eta garraio antolatzaileei zuzendua:

1. Kontuan har dezaten euren produktu eta zerbitzuak BISITARI DENEI eskainiz, merkatua garatzeko aukera paregabea dutela. Bisitari DENEI diogunean, elbarritasun motaren bat edo nonbaitera iristeko arazoak dituen pertsona oroz ari gara, halaber adinari lotutako zailtasunak dituzten pertsonen, baita haur txikiak dituen familiez ere.
2. Ikusmolde unibertsalaren printzipioak aplika dezaten eta tokietan erraz sartze eta iristeko ahalbideratzen duten gomendioak bete ditzaten, bisitariei zuzendutako informazioa eta promozioari dagokionez (Interneteko atariak barne), hala nola bisitariei eskainitako garraio zerbitzu, instalazio eta hornidurari dagokionez.
3. Arduradunak eta langileak lagundu elbarrituen beharrei dagozkien, eta sartze eta iriste erraztasunarekin zerikusia duten gaitan prestatzeko eta sentsibilizatzeko aukerak emanez.

4. Aintzakotzat hartu ENATEko *jokaera oneko borondatezko Kodea*¹, enpresa garatzeko aukeratzat eta bisitarietarako harremanak hobetzeko tresnatzat hartuz, **bisitari denei** turismo zerbitzu egoki, arduratsu eta kalitatezkoak eskaintzeko helburuarekin.
5. Kontsumitzaile erakundeekin lan egin, eta batez ere elbarrituak, pertsona adinduak, gazteak eta haur txikiak dituzten familiak ordezkatzeko dituzten GKE-ekin, turismo zerbitzuetan dauden hutsuneri erreparatzeko eta haien kalitatea hobetzeko.
6. Parte hartu toki, nazio eta partaide anitzeko sareetan, gaitasunak elkar partekatuzko eta turismo mota honen emaitzak hobetzeko, bide batez, harrera egiten duen komunitatearen iraupena ziurtatuz euren ekarpen positiboari esker.

Tokiko agintariei zuzendua :

7. Ikusmolde unibertsalaren eta garapen iraunkorraren printzipioen arabera, aurrerantzean, publikoari irekita den eraikin edo leku oro jaso edo berritu behar baldin badute, edo zerbitzu publiko berri bat instalatu edo garatu behar baldin badute, trabarik gabe eraiki.
8. Kaleak erraz zeharkatzeko, eta gune publiko, salmenta eremu eta parketan trabarik gabeko oinezko bideak antolatu.
9. Ahalmen fisiko murriztua duten bisitarietarako garraio publikoa egokitu.
10. Taxi edo limusina enpresei eskatu beste bezeroei eskaintzen dieten deien bidez zuzendutako garraio zerbitzu berbera eskaintzea elbarrituei ere.
11. Elbarrituentzako aparkalekuen erabilgarritasuna kontuan hartzen dituen politikak eratu.
12. Lakealdi edo kultur ekimenetan, edota garraio zerbitzuetan elbarrituak laguntzen dituzten pertsonak sustengatzeko neurriak hartu.
13. Sektore pribatuko arduradun eta langileei azaldu zein onuragarria izan daitekeen kokagune eta zerbitzu iriste errazak eskaintzea, eta edozein motako elbarria edo ezintasuna duen BISITARI ORO ongi errezipitatzeko formazio programak sustatu langileen artean.
14. Turismo eskuragarri eta inklusiboari buruzko ezagupenak garatzeko eta hedatzeko baliabideak eskaini enpresei eta halaber, DENONTZAKO produktu eta zerbitzu turistikoak gauzatzeko eta hobetzeko tresnak.
15. Tokietan sartze eta bertara iristearekin zerikusia duten galderak pausatu bezeroei zuzendutako asetze-ebaluaketetan, era horretan xehetako turismo eta komertzio sektoreek ikasteko eta garatzeko tresna bat izan dezaten.
16. « *Destinations pour TOUS* » bezalako proiektuak sortu, bisitari oro oztoporik gabe bidaiatu dezan, izan dadila lan edo ikasketak egiteko, osasunbideren bat jasotzeko, boluntario lana burutzeko edota oportetaz gozatzeko.
17. Helmugari dagokion kudeaketa bateratua lortu, tokiko, udaletako eta eskualdetako egituretan, behar haina dirulaguntza eta baliabideak eskainiz tokian tokiko turismo iraunkor, eskuragarri eta inklusibo bat garatzeko eta sustatzeko, bide batez, sektore publiko zein pribatuko eragileekin elkarlana bultzatuz.

¹ Ikus: <http://www.accessibletourism.org/?i=enat.en.enat-code-of-good-conduct>

Gobernu eta nazio agintariei zuzendua:

18. Lehenetsuna eman diezaioten turismo eskuragarri eta inklusiboaren aldeko politikei nazio erakundeek turismo sustapen eta garapen mailan.
19. Hezkuntzarekin lotutako erakundeak, BISITARI OROren harrera eta eraikinetan erraz sartzeko baliabideri buruzko prestakuntza ikastaldietan parte hartzera bultzatu.
20. Elbarritasunen bat nozitzen duten bezeroen harrerari buruzko formazioa sustatu bidaia sektorean zuzenean lan egiten dutenengan.
21. Produktu eta zerbitzuak, garraioarenak barne, eskaintzen dituzten establezimenduei aholkua eman euren bezero elbarritu eta ezinduentzat dituzten sarbidea eta zerbitzuak ikusta ditzaten, oztopo fisiko denak kentzeko eta bezero horientzat zerbitzu bereziak antolatzeko.
22. Neurri fiskalak hartu jadanik eraikitako establezimenduen jabeak eta garraio enpresa pribatuak laguntzeko, euren establezimendu eta zerbitzuetako sarrerak eta iriste bideak elbarrituentzat egoki ditzaten.
23. *Etxegintza – eskuragarritasuna eta ingurumen eraikia erraz erabiltzeko* neurriei dagokion ISO 21542 Araua aplikatu gutxienezko estandar gisa eraikin berriak jasotzeko orduan (nazio arau altuagorik egon ezean), eta ahal den neurrian delako araua gainditu.
24. Turismo eta kultur establezimenduetan eta hauen inguruan sartze eta iriste erraztasunari dagokion ziurtagiriak lortzeko, nazioarteko erkidegoak ezarritako gutxienezko aginduak bete.
25. Turismo zerbitzuei buruzko informazioari dagokionez, ikusmolde unibertsala kontuan hartzen dituen ildo nagusiak sustatu.
26. Interneten gune publiko bat sortzerakoan, sarean azaltzen diren hurbilerraztasunari buruzko zuzentarauak onartu (WCAG 2.0 bertsioa aholkatzen da), eta turismo operadore eta bitartekariak aipatu gunea erabiltzea bultzatu, bisitari denak sareko informazioa jaso dezaten, ezintasun fisikoa zein zentzumena dutenek ere bai.
27. Ondasun eta zerbitzu eskaintza deialdietan, eta garraio zein establezimendu publikoko kudeaketan, hurbilerraztasunari buruzko baldintzak kontuan hartzea bultzatu.
28. Egiaztatze mekanismoak era eraginkorrean finkatu, turismo zerbitzu hornitzaileek hurbilerraztasun baldintzak ongi betetzen dituztela ziurtarazteko, nazio zein nazioarteko mailan.
29. Elbarritu eta ezinduei zuzendutako turismo alorrean, enplegua eta enpresen sorrera sustatu.

Nazioarteko mailan :

30. Eskualde eta nazioarteko erakundeak bultzatu euren turismo produktu eta zerbitzu denak hurbilerraztasun estandarrek errespetatu ditzaten, turismo industriako partaide denekin elkarlanean arituz, eta horien artean, elbarritu eta ezinduetaz arduratzen diren erakundeekin ere bai.

31. Turismo arloan, ISO 21542 Arauaren aplikapena sustatu, instalazio turistikoen gutxieneko hurbilerraztasuna bermatzeko asmoz.
32. Nazioarteko agintari eskudunen ardurapean egiaztatzeko mekanismo bat onartu nazioarte mailan, turismo arloko industria eta elbarrituak ordezkatzen dituzten erakunde ororekin elkarlanean, instalazio turistikoen hurbilerraztasuna egiaztatu ahal izateko.
33. Turismo eta kultur establezimenduen hurbilerraztasuna neurtu eta egiaztatuko duten tokiko edo nazioko erakundeak baimendu, nazioarteko egiaztapen irizpideetan oinarrituta.
34. Normalizaziorako nazioarteko Erakundea (ISO) bultzatu ISO 21542 Araua dohain izan dadila lor dezan, aipatu arauaren hedapena eta erabilpena errazteko, kontuan izaki zein garrantzitsuak diren estandar horiek elbarritu eta ezinduen gizarteratze prozesuan.
35. Aire garraioari buruzko Chicagoko Hitzarmenetik eratorritako « Facilitation Panel »-eko Estatu kideak bultzatu OACIren gomendioak errespetatu ditzatela, elbarrituen mugikortasunari dagokionez, batez ere hegazkinen kabinetan eta komunetan.
36. Jardunbide egokiei buruzko informazioa eta turismo eskuragarriari buruzko dokumentuak Interneteko Sarean eskegi.
37. Munduko Turismo Erakundeari eskatu aipatu gomendioak jaso ditzala eta munduko turismo etika-Batzordeari jakinarazi diezazkiola, delako batzordea munduko turismo etika Kodearen aplikazioaz arduratzen den erakunde independentea izaki. Erakunde honek gomendio horien baliagarritasuna neur dezan eta behar bada OMTeko Batzar nagusian aurkez ditzan.

Azkenik, « Destinations pour tous » munduko Goi-bileran parte hartu dugunok:

38. Enpresa, tokiko agintari, nazio organo eta nazioarteko elkarteri eskatzen diegu eman dezatela elbarritu eta ezinduei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruzko politika eta estrategien berri, aldaketaren aldeko giro berria sor dadin.
39. **European Network for Accessible Tourism (ENAT) erakundeari gomendatzen diogu** koordina eta presta dezala *mundu mailako sare* bat edo *turismo eskuragarri baten aldeko mundu elkarte* bat eratuko lukeen proposamena, non arlo honekin zerikusia duten partaide denak bat egingo luketen, Adierazpen honek aldarrikatzen dituen helburuak lortzeko asmoz.

Nazioarteko erakunde honek honako eginkizunak izango lituzke:

 - a. Denei zuzendutako turismo zerbitzu eta ingurumenean, berrikuntzak bultzatu, bisitarien segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko behar diren goi kalitateko neurriak lortzeko;
 - b. Partaideen helburuak kontuan izan eta adierazi;
 - c. Merkatal eta arauzko ingurumen baikor bat helburutzat hartu;
 - d. Mundu mailako erreferentzi moduan lan egin **Turismo Eskuragarri, Inklusibo bat eta jende ororentzako bidai Helmugak** sustatzeko.

40. Zera aitortzen dugu, aurrerapen asko egin dela hurbilerraztasunari dagokionez, baina halere, ahalegin gehiago egin behar dela denon artean **denentzako Mundu bat** sortzeko.

Adierazpen honen aurretiko testua "**Destinations pour tous**" munduko **Goi-bileran** parte hartzaile guziak jaso dute eta, lantaldeetan aztertu eta eztabaidatu ondoren, osoko bileran onartua izan da.

Sinadurak :

Sinadurak webgunean ikus daitezke eta, nahi ezker, Adierazpena sina daiteke bertan : <http://www.destinationspourtous2014.com/fr/declaration>.

Oharra : Ingelesezko bertsioa da behin-betikotzat onartu den testu ofiziala Goi-bileran.

Adierazpen honen itzulpena frantsesetik euskarara Edurne Alegria Aierdik egin du.

ERREFERENTZIAK

- ⁱ La *Déclaration des droits de la personne handicapée* (ONU, 1975) : <http://www.ohchr.org/EN/ProfessionalInterest/Pages/RightsOfDisabledPersons.aspx>
- ⁱⁱ *The Principles of Universal Design*, Version 2.0. Raleigh, NC: North Carolina State University, The Center for Universal Design (1997) : http://www.ncsu.edu/ncsu/design/cud/about_ud/udprinciples.htm
- ⁱⁱⁱ *Le Code mondial d'éthique du tourisme* (OMT, 1999) : <http://ethics.unwto.org/fr/content/le-code-mondial-d-ethique-du-tourisme>
- ^{iv} *2010, Une Europe accessible à tous* (Commission européenne, 2003) : http://www.accessibletourism.org/resources/final_report_ega_fr.pdf
- ^v *La Charte de Rio sur le Design universel pour le développement durable et inclusif* (2004) : <http://siteresources.worldbank.org/DISABILITY/Resources/280658-1172672474385/RioCharterUnivEng.doc>
- ^{vi} La Convention relative aux droits des personnes handicapées (ONU, 2006) : <http://www.ohchr.org/FR/ProfessionalInterest/Pages/ConventionRightsPersonsWithDisabilities.aspx>
- ^{vii} *La Déclaration de Takayama sur le développement des communautés de l'Asie-Pacifique* (UN Economic and Social Commission for Asia and the Pacific, ESCAP, 2009) : http://www.accessibletourism.org/resources/takayama_declaration_top-e-fin_171209.pdf
- ^{viii} *La Norme ISO 21542, Construction immobilière - Accessibilité et facilité d'utilisation de l'environnement bâti* (2011) : http://www.iso.org/iso/fr/home/store/catalogue_tc/catalogue_detail.htm?csnumber=50498
- ^{ix} *Le Manifeste italien pour la promotion du tourisme accessible* (2011) : <http://www.accessibletourism.org/resources/il-manifesto-en-2.pdf>
- ^x *Le Rapport mondial sur le handicap* (OMS, 2011) : http://www.who.int/disabilities/world_report/2011/fr/
- ^{xi} 5th International Conference on Responsible Tourism in Destinations addressing Access to All (ICRT, Canada, 2011); http://www.keroul.qc.ca/DATA/PRATIQUEDOCUMENT/43_fr.pdf
- ^{xii} *Le Manuel sur l'accès des personnes handicapées au transport aérien* (OACI, 2013) : <http://store1.icao.int/index.php/manual-on-access-to-air-transport-by-persons-with-disabilities-doc-9984-french-printed.html>
- ^{xiii} *Les Recommandations de l'OMT en faveur d'un tourisme accessible à tous* (OMT, 2014) : <http://dtxqt4w60xqpw.cloudfront.net/sites/all/files/docpdf/accessibilityfracc.pdf>
- ^{xiv} Les Congrès internationaux sur le tourisme pour tous tenus en Espagne à l'instigation de la Fondation ONCE : <http://www.fundaciononce.es/es/noticia/avila-acogera-el-iv-congreso-internacional-de-turismo-para-todos>
- ^{xv} *The Catalunya 2020 Vision for Responsible Tourism: the Barcelona Declaration* (2013) : <http://rtd7.org/home/declaration>
- ^{xvi} ICAT Conferences: <http://icat2014.beautifulgate.org/my/>
- ^{xvii} *Access to Culture 2012 Report*: <http://www.euroblind.org/working-areas/access-to-culture/nr/1315>
- ^{xviii} *Way Forward, World Federation of the Deaf: Vision & Action Plan 2011-2015*: <http://www.wfdeaf.org/wp-content/uploads/2011/09/WFD-Action-Plan-2011-2015.pdf>
- ^{xix} *The Proposed Model Regulations for Accessible Taxicabs and For-Hire Vehicles* (International Association of Transportation Regulators, 2014) : <http://www.iatr.org/>
- ^{xx} *Proposition du Groupe de travail ouvert concernant les objectifs de développement durable* (OWG, août, 2014) : <http://www.fao.org/post-2015-mdg/news/detail-news/fr/c/239304/>